

AZTERKETA LITERARIOAK

Pello ESENAL, Antonio Závala: omen eta oroinmen	5
JoseMari IRIONDO, Pedro Mari Otaño: 100 urte hil zela	19
Luis María MUJICA, Miranderen poetikara hurbilduz. Ideología, Sentsualismoaren hariaik.	33
Inaki ALDEKOA, Euskal poesia modernoa (Arestrien eta Potten oinordekoak)	49
Inaki Zubizarreta, Manuel Lásante	63
Joxe Angel IRIGARAI, Egunsentiarren esku Izoztuak eta Xabier Leteren poetika. Zenbait Iruzkin	89
Paxti SALABERRI MuñOA, Iturri urdinren bila (Leitzarragaren Testamentu Berria eta hari erantsitakoak)	109

SORKIN/TZ

Pello OTXOTERK. O. Bizitzaz ardo botila bat da	153
Juan Luis ZABALA. Hamalikia ipuin labur	157
Luis María MUJICA. Hildegardoaren solasak	163
Luis María MUJICA. Antzirako Koadro geldia	169

ITZULPEHAK

Mikel PERUARENA. Zakurrak oinutsik	175
HAUR ETA GAZTE LITERATURA	
Inaki ZUBELDIA eta Fernando MURILLO. Iñaki Friera	183

ADABAKIAK

KRITIKAK ETA ERRESEINAK	
Juan Luis ZABALA. Euskal literatur sortkuntza:	213
2009an argitaratutako liburuen zerrenda	
Pello OTXOTERO. Edertasuneranzko ihesaldia	247
Julen AZPETIA. Amphora baita	251
Juan Luis ZABALA. Euskal literatur sortkuntza:	213
2009an argitaratutako liburuen zerrenda	
Pello OTXOTERO. Edertasuneranzko ihesaldia	247
Julen AZPETIA. Amphora baita	251



May 1 Salvator Canticum Sinfoni

BIBLIOTECA CAMPUS DE ÁLAVA KOLDOKO MITXELENA
KOLDOKO MITXELENA ARABAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA
Sign. 202.162 + 821.62(05) E4

卷之三

Digitized by
Saila

卷之三

Data

卷之三

RIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO

DEN EINER KARAFFA UND HILIGARIA

-REH EUZRARAZKO GEHIGARRIA

Ikeriaren Adiskideen Elkartea, Gipuzkoako Saila

63 Postakutxatila — DONOSTIA

卷之三

2010-1/2
[X]||| area

Iturri urdinen bila (Leizarragaren Testamentu Berria eta hari erantsitakoak)

Patxi SALABERRI MUÑOA

0.- Gehiegijorratu gabeko arazoa gertatu da luzaroan Joanes Leizarraga kalbindarrak euskarakatu zituen lan desberdinan edizioen identifikazioarena. Dena den, ez zen bigarren ordukoa izan beskoitzarrak Testamentu Berriaren grezieraiko bertsioa (bakarrik) erabili ote zuen planteatzen zuen hipotesia, ez eta, urrats bat haratago, Itzultzaleak jatorrizko testuekin jokatzeko izan zezakeen askatasunaren inguruko eztabaida bera ere.

Iturrien identifikazio-eginkizunaren ohiko zailtasunak areagoturik agertu dira betiere Eliza Erreformatuak bere historia laburrean argitarazi zituen obren edizio aniztasuna zela medio. Izatez, obra beraren edizioak zuzenduaz, osatua edota, behin baino gehiagotan, unean uneko premia eta interesen arabera egokituaz joan ziren urte gutxien epean. Catechisme edo *Bible* delakoa bezala beste guztiaik, Kalbiniek atondutako lanak Leizarragaren erreferentzia-esparru erlijiosoaz zen frantses geografian barrena argitaratu eta banatu ziren, fedea berria hedatu nahian. Egitekoan jarritako adoreak edizioen ugaltze nabarmena izan zuen ondorio.

Inprimatzen zailen ziren eta koste gehien zuten biblien etxozpe-na, esaterako, eskerga izan zen Ženeva aldean: "alors que la période 1540-1550 n'avait vu que deux éditions genevoises de la Bible en français, la décennie suivant (1551-1560) avait donné le jour à trente-quatre [sont comprises dans ce nombre les mêmes éditions

qui paraissent sous des noms différents, pour cause d'association]. Genève continue à produire beaucoup, pendant la période 1561-1570, puisque vingt-huit nouvelles éditions complètes de la bible réformée française sont publiées” (Engammare 1991, 363).

Ordutik hona igarotako laurehun eta berrogeita hamar urre luzeek ere beren zama larria utzi dute testuen identifikazioaren ahalegienen jolasean, argitaratutako edizio asko, ez bakarrik han-hemenka barreiatu, gaidu ere egin baitira dagoeneko, Leizarragaren Kalendraren iturri izan bide ziren calendrier izenekoenean genealogiaren berrelaketa-lanak ezin garbiago erakusten duen legez¹.

Ahuleziak ahulezia eta gabezak gabeza, salo xume bat eskani nahi zaio lerro hauetako beskoitzar itzultzale-moldatzalearen lanen iturri izan bide ziren identifikazioaren oinarrizko jartzeari, oraingo honetan, Testamentu Berria eta hari erantsita aigitaratuak baino aztertuko ez badira ere.

Kuxkuxatez filologiko hutsetik harantzago, honako proposamen honek, besteren artean, Leizarragaren hizkuntza-hautua eta itzulpenestrategiak behar bezala ikuskaritzeko bidea irekitzen lagun liezaioketondoren letorkeenari² añadior, pero cf. ahi mismo i lacob, enganadoura”. Leizarragaren iturrei ereparatuz gero, garbi dago enganadoreahitza frantsese.

Uste horrekin datoaz, han zuzen, ondoko lerroak.

1.- Leizarragak berak Kalendraren agertzen duenez, Testamentu Berriaren Inprimatze-ana 1571ko irailaren 24an burutu zen: “Egun hunequin Testamentu berria Heuscaraz lehenic imprimitzer acabatu 1571” (Kalendrera, [a.vii], rº³).

Zertxobait beranduago -baina udazkenean edonola ere, larrazkeneko azokak baliatu behar baitziren halako liburuen salmentarako, kaleratu zuen Kalendrera eta, nonbait, ABC edo Christinoen instruc-

(1) Salaberri (prentsa).

(2) Beste inon iradoki izan dugun moduan (2007), ez dirudi testuen arteko parekatze sistematiko zehatzak lexikoaren esparrura ekar lezakeena ere hutsaren hurrengoa izango zenik. Adibide xume bat erabiliz. Orotaniko Hiztegian ez da argi geratzen zein desberdintasun atzematen zuen Leizarragak decevialdea eta enganadora hitzen artean (Linschmann – Schuchardt 1900: 1190), ez batto, izan ere, G. Areistik proposatutakoari zaintza-puntua baino eransten: “Ar[es]ti [...] traduce 06

tonea bera. Guztietako, ezaguna da, Arroxelan, Pierre Hautin³ Inprimatzalearen etxean.

Iritsi zazikigun albisteen arabera, bospasei urte behar izan zitzuten kaleraze-premia larria zuen bertsioaren zuenzteak eta Inprimaketa-lana prestatzeko. Gertaera harrigarri xamarra, zeren, antza denez, Leizarragaren behin-behineko euskaratz-lanak pare bat urte besterik ez baitzuen Iraun, 1563tik 1565era, hain zuzen. Baino bitxia izan arren, ilunegi segitizen du oraindik gertatua.

Bestelakoik kendu gabe, jakina, inprimatze-atzerapen horren arrazoia zertxobait argiago gera liteke, baldin, hipotesi bezala, editore-alidaketaren bat suertatu zela egiaztagatuko balitz. Edo zehazago esanda, Arroxelako Hautin editorea baino lehenago Genevako Jean Bonne-foy izan zela aukeratua frogatuko balitz⁴.

Argitalpenaren lutzatze-atzerateak hobe uler litezke, baina, tar-teinan liburuem edizioa Genevatik Arroxelara aldatu zela suma baledi.

Eta Bonnefoy-ren izena ekartzen badugu, ez da kasualitatez edota apeta hutsez, beste arrazoi sakonago bategatik balzik. Jean Bonnefoy, izatez, Kalbiniek sakon berrikusia zuen eta, gerotzik, kalbindarrek ofizialtzat hartua zuten frantsesezko *Le Nouveau Testament* dela-koaren⁵ argitaratzalea izan zen Genevan –gutxienez–1563an, hain zuzen ere, Leizarragari Testamentu Berria⁶ itzultzeko agindua eman zitzalon urrean bertan.

(3) Leizarragaren argitalpenetan “Pierre Hautin” gisara agertzen den Inprimatzalea Lyongo eta Parisko edizioetan “Pierre Hautin” modura agertzen da. Hortik, bera, inozka Pierre Hau(t)n bezala azaltza artikulu honetan barrena. Nafarroako Joana Albet erreginak erakarria, Arroxelan artu zen 1570etik 1588ra bitartean. Inprimatu zituen lehen lanak Leizarragarenak izan ziren.

(4) 1565eko Oloroeko sindoaren eskuzkribuak kontsultatzeko aukera ezak teke ea Leizarragaren eta euskal lau Ministro zuentzaleen lanen ordainketa burutu zenarena: “Bonnefoy” (edo “Bonnefoy”). Errazgo ulertuko litzatsek honako esaldia-ren esanahia: “[...] Monsieur de Bonnefay” (M. Lissarrague 1931, 364). Lacomberen transkribapenez ballatzen garamatzan arren, egiazatua egin beharko litzatzeke ea Leizarragaren eta euskal lau Ministro zuentzaleen lanen ordainketa burutu behar zuenaren delitua “Monsieur de Bonnefay” zen ala Genevako inprimatzailea zenarena: “Bonne-foy” (edo “Bonnefoy”).

(5) 1565eko Oloroeko sindoaren eskuzkribuak kontsultatzeko aukera ezak teke ea Leizarragaren eta euskal lau Ministro zuentzaleen lanen ordainketa burutu behar zuenaren delitua “Monsieur de Bonnefay” zen ala Genevako inprimatzailea zenarena: “[...] Monsieur de Bonnefay” (M. Lissarrague 1931, 364). Gurea azalduko diren hainbat hipotesirekin.

(6) MT, hemendik aurera.

TF laburdurekin ere alpatuko da aurerantzean.

Bestalde, eta hartarako arrazoiak ez bide zen arren, TBren bananaketa hiru urtez atzeratu zen argitaratu zenetik, 1574ko abenduaren 15era arte, alegia. Orduko Pauko Sinoak honako erabaki hau utzi zuen idatzita: "... Les Nouveaux Testamens en Langue Basque seront distribués par Les Colloques, en rendront compte au Synode prochain" (Lacombe 1931, 365-366).

Unte larregi, agerian da, euskal eliza erreformatuak ezinbesteko zuen erlijio-liburu fundazioak kalea ikusi zuen arte. Suposatzeakoa da, dena den, hark ez bezala, Kalendrak eta, agian, ABCak berak ere argitaratu bezain pronto ezagutu zituztela euskaldunen supazterrak eta eliza-zokoa.

2.- Nolanahi ere den, eta Leizarragaren liburu nagusiaren ediziola itzuliz, diogun lehendabizi ez direla gutxi Testamentu Berria izendapeneraren bilartez ezagutzen den argitalpena osatzen duten atalak, eta ez guztiek maila berekoak, ez bederen garrantzilari eta sorkuntza-mailari dagokienez.

Guztietatik, jakina, **Testametu Berria** bera da lehendabizikoak garrantzian eta tamainan, eta arazo gehien ematen segitzen duena; ez dago horretan zer duda. Haletako bat, berez erkargarrria filologieren esparruan, itzultzailpeak balitatutako iturriel datxekiena eta, gorago azaldu bezala, hemen mahai-gaineratu nahi genukeenā.

Ildo horretan, Leizarragak TBren itzulpenerako Olivétan-en frantsesekoa bertsioa, grezierazkoa eta *Vulgata* erabiliz zituela zioen irizila, Iuzaroan hedatuenā, azken urretan baitzertutxē geratu da, egiaztezkotasun gehiago erakutsi baitu grezierazkorik ez zuela baliatu dioen hipotesiak. Balina harantzago eginez, hipotesi egokia dirudi *Vulgata* bera ere erabiliz ez zuela dioenak.

Are gehiago (eta hau da hemen sustatu nahi genitzueen hipotesietako bat): egun bidezkoago dirudi Leizarragaren eredu nagusia 1559ko urritik 1563ra bitartean frantsesetaratu *Nouveau Testament* izenekoren bat izan zela pentsatzeak⁷, eta ez 1564koak, Lafontaine

(7) Hipotesi horren barnean, gehiago ere hertsil litezke datak, izan ere, 1561-1564ekoak izan baitzen Leizarragak ezagutu eta erabili zuen *fraterni testu-finkapenaren* ezaugarriri nagusio gehienak bildu zituen argitalpena (adibiderako, Mt. 2., 6. pasarteko "princes" hitza ute hartako edizioan hasi zen "gouverneurs" bilakatzen, etab.), 1560an burutu baitzuten Kabinetk eta Béze-k "la dernière révision importante du

nek proposatu zuen bezala (1943: 1980, 50), hala izan balitz, bestea beste, Leizarragak ez baitzukeen urte bat besterik izan berea burutzeko.

Guztiarekin ere, Errreformaren mekanismoak sakonegi ezagutzen ez dituenak ere badaki eliza protestanteetan zenbat tokiz uzten zitzainen Inprobisazioari eta norrk bere aldetik ibiltzeari. Soberan lego-ke, ziurrenik, antonomasiaz Liburua zena (liburu sakratua) oso gutxik baino ezagutzen ez zituzten hizkuntza batzuetatik oraingoz kultur hizkuntza bezala onduak ez zirenetara translaturu behar zenean itzultzalle-interpretatzaleen askatasuna norainokoa izango ote zen gal-dezten hastea.

Eta zalentzatik geratuko balitz, aski luke edonork Bonne-foyren ardurapeco *Le Nouveau Testamentaren* izenburu osoa⁸ eta hasierako gutuna⁹ irakurtzea. Argi uzten da bertan behar bezala zuzendua eta finikatua zela frantsesekoa bertsio Kanonikoa, "behin betiko"¹⁰ ikuskatze-lanak Kabinetk berak eta Theodore de Bèze teologoak eginak zirelarik.¹¹

Nouveau Testament avant 1588" (Engammare 1991, 361, oharra). Holanahi ere, gogora bedi urte haletan argitaratutako bertsio guztiek testuetan bal, baina xehetasunetan eta paratestuetan ez zirela berdin-berdinak. Adibidez, Jean Tournes-ek 1561ean Lyonen kaleratu zuen *Bible* deiahoan (ian honetan bigarren mailako erre-rentzia nagusitza erabiliko den horretan, alegia), bigarren parteeko *H/Tko* testuun albo-rik gabeak, hain zuzen, kapituluun hasierako laburpenek ez dute zerikusirik beskoiztarrarenkin. Hori bal, *H/Ten* hasieran ez da falta liburuan izenen koadroa (1563ko *H/Tan* ez bezala, honetan Leizarragaren egiten duen bereizkeria egiten da epistolaren atalean: "Epistles de S. Paul" eta "Epistles catholiques"), ez eta *Testametu Berriak* amalaren ematen duen izen propioen zerranda ere. Amairako "Recueil d'aucuns mots & manières de parler difficiles du nouveau Testament avec leur déclaration" atala ere Leizarragarena bezalako da (azken honena, gogora bedi, euskararen hiztegira eta senera egokitua).

(8) *Le Nouveau Testament*, c'est à dire, La nouvelle alliance de notre Seigneur Jesus Christ. Revue & corrigée de nouveau sur le Grec, par l'advis des Ministres de Geneve. Avec annotations revuees & augmentées par M. Augustin Marforat (Geneva, 1563).

(9) "A tous fidèles chrétiens, nos tres chers frères en nostre Seigneur Jésus Christ, Les Ministres de la parole de Dieu, gracie & paix en Ieuuy" 1559ko 10ekoa (1563, orri-zenbakirik gabe).

(10) Esanak esan, ezin ahantzi daituke Olivétan-en *Bibliak XVI.* mendean ezaguutuko duen berrikusatzeko- eta egokizte-ian osoena eta sakonena ez zela 1588ra arte burutuko (Ikus Engammare 1991).

Gainera, koldarregi izan gabe ere, zein itzultzaille erreformista ausar zitekeen gutun hartan definiturik agertzen ziren translatzaileen irudiko izaten?: "[...] maintenant Satan a trouvé autant de traducteurs qu'il y a d' esprits légers & outrecuidéz, qui manient les Ecritures: & trouvera encores desormais de plus en plus [...]” (1563, z.g.). Nonbait sudurretan errotua segitzen zuen hamar urre lehenago Geneva penitentziatutiko Miguel Servet-en gorpuaren erreusainak!

Beraz, Bonaparte euskalariaren irizpideari jarraiki Vinsonek idatzi legez, "... Il est probable [...] qu'il a suivi la version française en usage de son temps dans les Églises réformées" (Vinson 1891-1898: 1984, 34).

Bere garaiako bertsio frantsesa eta hura besterik ez, erantsiko genuke guk.

Eta, hautuari eragozenik atera lekiokeen arren, Bonne-foy-ren 1563ko edizioa¹² jarri nahi genuke ikusmiran, bestearik beste, eskuagarrienetako bat izateaz gainera¹³, mugarrí garrantzitsua izan ere zelako *HTaren* Inprimatzearren historian.

Dagoeneko, KalbineaK eta Bèze-K berrikusi eta zuzendutako *Le Nouveau Testament* delakoaren edizio horretarantz apuntatu genuen beskoitzarraren iturri nagusi bezala, hari eskanitako lan baten hitzarrean.¹⁴ Urte bereko udaberrian Leizarragari Beskoitzzen egindako omenaldian aurkeztu genuen hipotesi horren Ildotik ablatu ziren, halaber, handik hilabete batzuetara argitaratu zen *Testamentu Berriaren* faksimillaren aurkezeak ere¹⁵.

(11) "Laquelle charge ils ont acceptee, & (moyennant la grace de Dieu) tellement executee, selon nostre iugement, que nous esperons que nostre Seigneur en recevra profit" (1563, 2. 9).

(12) *Le Nouveau Testament* (Geneva, Bonnefoy, 1563).

(13) Honako helbidean: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k108678p.image.r=calvi%2C+jean,f6.langFR>.

(14) Iku gure Leizarraga Zaharra, Leizarraga Gaurkoa (2007).

(15) Iku Kintana 2007 eta Knörr 2007.

Gabezien artean, aitoritu behar da ezin izan dela 1562an argitaratuako *HTaren* alerik kontsultatu¹⁶, nahiz eta ordurako la erabat finka-turlik ziren 1563ko edizio honen testu-ezaugarri gehienak¹⁷. Bonnfoy-ren 1563ko edizio honetaz ballatu duguna, beraz, Leizarragaren iturria identifikatzen hasteko behin-behineko saio gisa balino ez da eskaintzen.

Izan ere, Inoliz zehazki egin beharko den arren, erraz qaindutuko Ituzke orriotako mugak eta egile honen bitartekoak *HTen* arteko konparazio zehatzka burutzearak. Uste dugu, dena den, aski daitakeela hiruzpalaú "frogia" xume aurkeztea baietzatzen ari garenaren erakusgarritzat. Honatx:

Batetik, agerian dago, kapitulu bakoitzaren buruan, segituan garaiko denaren laburpen gisa Jarritako titulu espilkagarriak¹⁸ Leizairagak 1563ko *HTtik* edo haren Ildotik argitaraturako batetik jaso zituen-

(16) Cunitz, Baum eta Reuss-en oharraren arabera, nekez izan zitekeen 1562ko Leizarragarenaren iturri zuzena, malizgi suertzen baitira desenkontrua. Bat baino ez alpatzearen, Apost. Actaeac 11, 26an dagoen pasatetxoa ekar daitake: 1562ko edizioak honeia dio: "Or advint que tout l'an entier ils s'assemblerent avec l'Eglise". Leizarragak honako hau idatzi zuen, ordea: "Eta gertha cedin urthe gucion Eliçarequin conversa batzeagaten", hain zuzen ere gainonizteko *HT* frantsesek agertzen zutenaren idiokoa, hots, "Or advint que tout l'an entier ilz converserent avec l'Eglise" (gureak dira adibideotako letrakeria etzanak).

(17) Esate baterako, estilo honetakoak Izañ ziren 1561ean finkatu eta ondoko edizioetan jasotako zehazpenak: "une precieuse perle" (Mt 13, 46), kasurako, "quelque perle de grand prix" bilakatu zen 1561eko edizioitik aurrera ("precio handitaco "perla bat" Leizarragarenear); "Il monta seul en une montagne pour prier" (Mt 14, 23) "il monta en la montagne pour être à son prieu afin de prier" bihurtu zen 1561etik aurrera ("gan cedin mendira bereciui, otoitz equin legançan" Leizarragarenear). Eta luzeago bat nahi izanez gero, hona hemen Mt 15, 5-6 delakoik hartua (Leizarragak zenbaki bat gaztzi jarri ematen duena): "5. [...] Le don qui sera offert de par moy, sera à ton profit; 6. Et ne honnorera pas son pere ou sa mere (il sera quite) [...] 1561eko edizioitik aurrera honela geratu zen: "5. [...] Tout don qui sera offert de par moy, sera à ton profit; 6. Encore qu'il n'honore pas son pere ou sa mere sera hors de couple [...] ("Eneganic, dien dono gucta probetxaturen ūa: ohora ezpadetxa-ere bere alta edo bere ama hoguen gabe date, 6. [...]") Leizarragarenear).

(18) Laburpenak Robert Estienne imprimatzaileak ezarri zituen lehendabiziko aldi 1553an argitaraturako *Biblia*. Horregatik eta orobat bertsikuluak numeratutik jartzten lehen *Biblia* frantsesa izan zelako bilakatu zen argitalpen hura erreferentziazo. Jean Crespin-en 1555eko ediziotik aurrera, ohiko egin ziren laburpenok biblia errefor-matu guztietan.

¹⁹. Egia da, halere, noizean behin aldaketa nimiñoren bat egiteko “ausardia” erakusten duela²⁰.

Jatorri bera dute, orobat, TB barnean ez dauden baina testua ulergarri egiteko eransten dituen hitzek ere (“[...] Testamentu berriaren heuscarazco translatione hunetan hitz bakoitz batzu letra cheheatzen diraden hitzak içanagatik, eztradiela ordea textu gorputz berecoac, baina declaragarri iarrac”, Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 254)²¹. Erkaketa sistematiikoaren faltan, eta grafiko hutsak ez diren akats zenbait kenduta²², esan daiteke “hitz deklargarri” horien kointzidentzia-kopurua oso altua dela NT eta TBren artean, bertsio bietan, Jakina, letrakera etzanez aurkeztuak. Egia da, dena den, euskararen senak desberdin jokatzeria behartzen duela behin edo behin, zeren, euskara eta frantsesa desberdinak izanik, hizkuntza batek behar dituen partikulak edo hitzak ez baitira beti derrigorrezko bestean²³.

(19) Aztertu ahal izan dugun Tournes-en 1561eko edizioak era “estilitzatuagano” (ez hain ongi taxitua eta zehatzua, alegia) ematen du laburpen gisako hori. Ezin, beraz, atal horretan bederen, Leizarragaren erreferentzia izan. 1566ko, ordea, 1563koaren Idokoak da ezzagutari nagusietan. Halere, didaktikoago eta begietatik sartzenko erakardantza lizatea bilatzan bazuen ere, askoz nabarrago eta nahasiago agertzen da azkenetako, batez ere Kapitulu-buruetako laburpenetan (berdin Lk 22an, zein Apost. Acteac 13an edo beste edozeinetan). 1563koak eta Leizarragarenak erakusten dituzten neurria eta orekaren sena falta zaiola, oro har.

(20) Ausardia izan ala ez (TBri dagokionez “ahal dudan fidelquirena equin ukian dudala” ziurtatzen baitu beskoitzarrak Errigilarenitzako gutunear: Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 253), ez da desberdintasunik falta testu bien artean. Nabarmen bat Mateoren 3. Kapituluaren hasieran. 12. berisetaren laburpena dela eta, 1563ko NTek honela dio: “12 Le van en la main, La paille au feu”. TBk zerbait gehiago eransten du: “12 Bahea escuan, lastoa suraco, eta bihia granereraco” (gurea da letrakera zuzena).

(21) Paperezko euskarria baliatzen duen obraren eskuragarritasuna medio, TBren inguruko erreferentzia gehienak Linschmann – Schuchardt 1900: 1990 edizioaren arabera eskainiko dira. Gogoratu behar da, halere, egun 1571ko edizioaren ale bat kontsulta daitekeena interneteko helbide honetan: http://www.euskomedia.org/PDFAN/mono/leizarraga/leizarraga_biblia.pdf.

(22) Leizarragaren edizioaren akatsa da, etsenplu baterako, 67^r orrian hitzaren ordez, hacia jarzear: “Eta hauc dirade elhorri artera hacia recebitez dutenac, hauc dirade, diot, hacia engutien dutenac.” (Mk 4, 18). Honela dio 1563ko NTek: “Aussi ceux qui reçoivent la semence entre les épines, ceux-ci di-e, sont ceux qui oyent la parole”.

(23) Iku, adibidez, Mt 5, 5 delakoa. Frantsesetxe: “Adonc vindrent à lui ceux de

Halaber, ezaguna da beste ebanjelio edo liburu biblikoetan dau- den antzeko erreferentziak markatzeko orduan, Leizarragak testuaren barnean izar () batez markatzan dituela alboan emango dituen alpuetako(z)kien pasarte-hasierak. Alipatu NTn egiten dena besterik ez du egiten.

Bestalde, alpuak ere 1563ko NTkoak berak dira, ez da alderik halen artean. Ebanjelio berekoak diren alpuak aderazteko, eta autore berberaren laburdura ez errepikatzearagatik, frantsesekoa bertsioan Sus (gorago) edo Sous (beherrago) erabilten diren lekuetan, Leizarragarenan Lehen eta Berriz agertzen dira, hurrenez hurren (ikus, adibidez, Mt 15, 22 eta Mt 16, 8, alboan).

Lexikoaren arloan “hurlitasun” handia erakusten du Leizarragak frantsesarekiko. Esate baterako, hitz berezi batzuk balno ez era-biltzarrean, 1563ko bertsioko chable, banque, maistre d’hostel, gendarmes, marcs, fässcherie, iuppe, lunatique, commencement de signe, m’empesche... Leizarragak honela ematen ditu: chable, bandanean, mestedostalarri, gendarmesac, marcoac, fässcheria, iupe, lunaticoa, signo harse, empatchatzen nau, etab. Edo Lk 8, 43: frantseseko ...la quelle avoit dépensé toute sa substance en médecins, Leizarragak honela: eta medicuetan bere sustantia guzia despenditu quen). Nabarmenago da dependentzia hori akaritsetan. Adibidez, testuak (Eg 8, 34) galduen hitza behar badu ere, frantsesetxe respondit ematen da eta euskaraz, jakina, ihardetsi.

Zinez baiezta lituke sintaktikoki ere estuki lotzen zaiola Leizarraga iturburuari, hala esaldi luzeetan nola motzetan. Halere, zenbaitetan arazoak sortarazten ditu iturriarekin fidelki jokatzeko nahik eta ez gutxitlan arraroegi (galizki?) euskarakarutik geratzen da pasartea. Mt 16, 13 dugu adibide. Frantsesekoa Qui disent les hommes que ie suis, moy Fils de l’homme? Leizarragak honela euskaratzen du: Ni nor naicela diote guijonéc, guijonaren Semea?

Erantsi behar da, dena den, Leizarragak hobetu egiten duela 1563ko NT kalbindarraren “logika” –barrikatuko ahal zaigu balezenaren gordinal– hainbat ataletan. Adibiderik alpatzekotan, Apostoluen

Ierusalem, & toute Iudee, & toute la contrée qui estoit à l’environ du lordain”. Leizarragak “hitz deklaragarri”-rik gabe josten du esaldia: “Ordian ethor cedin harengana Ierusalem eta Iudea gucia, eta lordanaren inguruco comarca gucia”.

Asteac liburuan aurkitutako bat ekar liteke hona, hots, Apost. Acteac 12, 25 delakoa. Pasarte horretan, frantsesekoa bertsio guztiek (baita 1563ko NTa ere) Barnabas-ez eta Paul-ez mintzo dira. Leizarragak, ordea, nahago izan zuen "Barnabas-ere eta Saul"-ez hitz egitea, aurreko kapituluetau (VI, XI eta XII. etan) jarritakoaren idiotik.

Anekdotikoak dirudien kontu honek bere logika (sakona) du. Izan ere, euskalazko bertsioan ere "Paul" modura ezagutuko den apostoliua, Apostoluaren Acteac liburuaren logikaren arabera, "Saul" balio ez baita XIII. Kapitulurano. Izen aldaketa, ezaguna da, 13, 9 atalean gertatzen da, ez lehenago: "Baina Saulen (Paul-ere deitzen denac" agertzen denean, hain zuzen²⁴. Deseogokia, beraz, ordura arte "Paul"-ez mintzatzea, frantsesekoa edizioetan hala egiten bada ere²⁵. Han-dik aurrera apostolu "Paul" izango da, ez bada gertatzen haren konbertsio uneetara (Apost. Acteac 9, 4) bueltarazten duten analепsi narratiboen jolasek besterik eskatzen dutela²⁶.

Jakinia, une honetan nekez jakin liteke beskoitztarrarena berarena den egokitzapenaren ekimena ala erreferentiazko besterren batena, baina, guk dakigula, euskarazko bertsioan bakkarrik aurki daiteteke zenketa hori²⁷.

(24) Izen-aldekaketa "ofizial" hori honela isolatzen dute 1563ko ediziok eta Leizarragak XIII. Kapituluan hasierako laburpenean: "22 Barnabas & Saul separez pour prescher [...] 50 Persecution contre Paul" eta "[...] 2 Barnabas eta Saul predicatora separaten [...] 50 Persecution Paulen eta Barnabasen contra".



(25) Goragoko XI. Kapitulua ere honela amaitzen da frantseseko edizioetan: "par les mains de Barnabas & de Paul". Leizarragak, berriz: "Barnabas et Saul escuz" (Apost. Acteac 12, 30). Nolanahi ere, hemen artikulua luzatzen eraman behar ez luken oñar bat erantsi beharra dago: alipatu pasarte horren segidaq dagoen XII. Kapituluan hasierako laburuen modukoa "25 Barnabas eta Paul Ierusalamera itzuli" idatzuen du Leizarragak. Pentxa liteke, hasiera batean bederen (eta garatzeko hipotesis genuke honako hau ere), beskoitztarra TBien iztulpena bukatu ondoren edo erantsi zirkoloa, la hitzez hitz jasota eta esaten zutena astirik gabe, 1563ko ediziozko laburpenok.

(26) Hala gertatzen da, adibidez, liburu bereko 22, 7 eta 26,14 pasarteetan ("Saul, Saul cergatic persecutaten nauc?") eta 22, 13 delakoan ("Saul, anayé, recebi ecac ikuslea").

(27) Cuntiz, Baum eta Reuss-en edizio-erakaketauren arabera (1893-1900, t. IX, 327 oharra), honako "ortodoxia" hau ez da frantsesekoa argitai penetan emanen, "ofizialki" aurkezta aurretik ere erabilten baita "Paul" izena (ikus Apost. Acteac 12, 25).

NT, Geneva, Bonnefoy, 1563

TB Arroxela, Haubin, 1571



3.- Leizarragaren Testamentu Berria deituriko liburuak badu, horratik, nabarmendu beharreko bestelakoik ere, harekin lotura zuzenik ez duten atalak, hain zuzen. Halen guztien antolamendua mintzatzean, beraiz, komenigarria da bereizketa hori ikusmiratik ez galtzea, *TBrekin lotura zuzenik ez duten atalek funtzionamendu autonomoa(goa)* izan baitzezaketen kaleratzerako orduan.²⁸

Has gaitezen, bada, Testamentu Berria linguistikoki eta –batik bat– doktrinalki zuzen ulertu ahal izateko prestatuak ziren atalak miatzetan.

Nafarroako erreginari eskaintzen zalon “**Gucizco Andre noble Ioanna Albrete...**” gutunak irekitzen du Idazlana (bal frantsesez eta bal euskaraez eredakatutau)²⁹ eta “**Heuscaldney**” zuzendutako aitzin-solas laburra³⁰ dator ondoren, bi-bilak Leizarragak (Leizarragak berak) idatzik. Testu zehatzak dira, egileari eta hark hartutako eginkizunaren inguruabarrei buruz hitz egiteaz batera, Euskal Herriaz eta euskararen egoeraz ere mintzo direnak, sinatzalleak baino ezin idatzitzetanak. Eredu edo iturri zuzenik ez zutenak, alegia.

Leizarragarenak dira, orobat, *TB* beraren amaiaran dagoen “**Çu-beroaco herriaren usangatan ezdiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliaç**” izeneko lexiko-taula laburra eta, jakina, bertan tartekututako hizkuntza oharrñoa³¹. Honela dio datiboori buruzkoa den ohar honek, zuleroitarren belarrientzat ezohiko egindo zen erabilieraZ ohartarazteko: “**ey, er**, dativo singularian *ari* erraiten dena, Cuberoan eta aldirietan pluralean erraiten da, *er*, eta berctean gucietan **ey**: hala nola batez minçatzeria erraiten da Heuscalerri gucian guïçonari, emazteari, haourrari: eta anhitzez minçatzeria, Cuberoan eta aldirietan guïçonér, emaztér, haourrér, eta berctean, guc heuscarrazco translatione hunetan usatu ukain dugun begala, guïçoney, emaztey, haourey, &c.”.

(28) Baina, eskuarki, Iburu larragoien eranskin gisara argitaratzen zituzten frantses eliza “*drezatuek*”, berdin *H/Treklin* batera zein *Marot* eta *Béze-ren Pseumes delakoarekin* (*Ihuss Barclay Squire 1912-II*, 342-348).

(29) “Gucizco Andre noble loanna Albrete Naffaroaco Reguina Bearnoaco Andre Guehien &c, denari, bere cebiltzari gucizco chipiac eta guicizo obedientac, Ioannes Leizarraga Berascoizcoac, Iesus Christien gratia eti bagaea desiratzen” (*Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 249-253; frantsesezko bertsioa: 243-248).*

(30) *Idem*, 254.

(31) Linschmann – Schuchardt 1900, 1990, 1213-1214.

Lexikoari dagokionez, hirurogeita hamar bat baino ez dira Leizarragaren ustez Zuberoako jendeari ulergaitza egin zekizkiokeen hitzak³². Aurreko testu biez esan bezala, honako honetan ere ez du zen-izturi ustezko iturrik bilatzen salatzearik, Leizarraga baitute sortzale eta erredakatzazole.

Altzitik, galontzeko idazkia kalbindar elizak agintzen zuenari segitz burutu ziren, inoizka baten baten barnean hizkuntz jolas pertsonalerako ate txikien bat irclekirk suertatu bazeen ere. “**Testamentu Berrico hitz eta minçatzeo manera difficil bakoitz batzu bere decimalarationéquin**” atalean³³, esaterako, Leizarragak egokitzapen interes-garri zenbait utzi zituen inprimaturik.

Hitzegiñō gisara planteatuta, iturritzat haritutako frantses testuetatik jasotako sarrerak eta definizio-deklarazioak ematen dira bertan. Bada, edozein modutan ere, iatomizkoareliko alderik; bestearik beste, Leizarragak ez ditu jasotzen frantsesezko bertsioan dauden hitz guztiak, eta ez, hain zuzen, euskaldunentzat ulerterrazak zirelako, ez baititru *Cervoise, Circoncision, Doigt de Dieu, Parole, Peagers, Phylactere, Quadrin, Servante, Statere eta Vipere* bezalakoak gurean arruntegiak zirenik. Horien ordez, hizkuntzaren eta kulturaren senak edo eskaturik, beste batzuk tartekatu zituen beskolzarrak, hala nola, armoa³⁴, erħia³⁵ eta guïçona³⁶ hitzak eta guerta cedin³⁷ eta quertha

(32) Zalantza egindo genuke atal horretan agertzen den hitz bat ez ote zen tokiz kanpo suertatu, náhiz eta horretan bertan paratu geratu zen beste atal desberdinengatik zurrunkat behartuta. “Pescadore, arrangale” hitzaz ari gara. Izan ere, nekez tartekeen hebraierazko eta grezierarazko hitzen artean, eta, bestalde, ez zen hitz difficulten zentzuelan kokatzeko modukoak, bestearik beste, atal hau *TBreklin* emana era berrikuntzel itxita zetonrelako Genetikatik. Honela definitu zuen Leizarragak, atal berezia beharko zukeen testua: “Pescadore, arrangale. Guiehien lekuetan arrançale erraliegatagarik, heuscalduen anhizi, ma. 4. 19 eta marc. 1. 17. Nic equinen çaltuztet guïça pescadore hobequi itzequiz, ecen-ez, nic equinen çaltuztet guïçarrançale: hala usatu ukain dugu” (*Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 1201-1215*).

(33) Linschmann – Schuchardt 1900, 1990, 1201-1215.

(34) “Haritzen da horri aħal deċaqueen edari guclagħati” (*Idem*, 1204-05).

(35) “Iaincoaren emha erran nahi da, laincoaren verthutea celr, (*Idem*, 1206).

(36) “Scripturan hartzen da, guïçon eta emazte, chipi eta haiba minçatzeo manera hunez usatu ukán dugu, ez halá erralten du, rantaç minčo diraden beġħal, venturazzu edo tropuzzo jaġuġa dela errancor, baina lengoagean moideżcoago Itzeuquż, eta Francesari larrēlquż” (*Idem*, 1206).

(37) “Guerta cedin, eċċari dugun lekuun, ġrecac emalten du baina minçatzeo manera hunez usatu ukán dugu, ez halá erralten du, rantaç minčo diraden beġħal, venturazzu edo tropuzzo jaġuġa dela errancor, baina lengoagean moideżcoago Itzeuquż, eta Francesari larrēlquż” (*Idem*, 1206).

eztadi³⁸ aditz formak. Horiezaz gainera, beste hainbat hitz-deklarazio ere moldatu zituen Leizarragak. Anaye (Frere) hitzaren egokitzapenean, esate baterako, frantseseko “en langue Hebraique se prend pour tout parent en quelque degré que ce soit” soila honela osatzen da: “deltzen dirade Hebraicoz, ez haouride diradenac solamente, baina ahaide guclac-ere: eta generalqui hartzen denean, erran nahi da hainbat anaye nola arreba, eta ez mundu hunetako, altamén respectuz, baina laincoaren respectuz” (Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 1201).

Kasuistikarekin jarraituz, interesgarria da, halaber, Legionea hitzarekin egin zuen egokitzapena, frantsesez "une bande de gendarmes qui contenait ordinairement cinq mille hommes de pied, & cinq cens de cheval..." agertzen den bitartean, Leizarragak areagotu egiten baitu soldadu-kopurua: "cen gendarmes zeko banda bat, ordinarioqui hamar mila oinezcoren eta borz ehunga Samarizoren kontukoric..." (*Idem*, 1208). Orobat, jatorrizko Denier ("estoit une espece de monnoye, de la valeur de trois sols six deniers de France...") honela agertzen da *Dinero sarreran*: "cen moneta mota bat hamalaur ardit Franciacoric valio cituenic..." (*Idem*, 1204). Hizkeren aberastasunaren lekukotasunaren aldetik, ezaguna da *Sabbathoari* egiten dion iruzkina, jatorrizko testua ("Or c'estoit le septième & dernier lour de la semaine, que nous appelons maintenat Samedi") honela emanen baitu beskoliztarrak: "Eta hura cen asteko ȝazpigarran eta azquen eguna, orain bat c larrambate, bercet egulakoitz eta berc c nesquen egun deitzen duguna" (*Idem* 1211). Azpimarragarria, halaber, anci nog a hitzaten definitio laburra.

Guztiarekin ere, esku artean darabilitzagun 1561eko eta 1563ko edizioen amaiaran aurkitzen den "Recueil d'aucuns mots & manieres de parler difficiles du Nouveau Testament avec leur déclaration" izenekoaren egokitzapena balio ez da Leizarragak atal horretan es-
kaintzen duen³⁹.

(58) "Guertha eztadila erraiten denean, hartzeko da, ez gauçág hala hellzeo perillik balu begala, baina neholere ecin hel daitelako reposatam" (*Idem*, 1206).

(59) Egon badaua ere (ortografiakoak, geltierak), nimoiaok dira oro har 1561-eko eta 1563-eko izotzalako "Recueil..." hauen arteko aldeak. Osanra hitza eramatean, adibidez, 1561-ekoak "properment" hitza tartekatzen du esaldi batean: "David proprement au regard de lui".

MT, Geneva, Bonnefoy, 1563

TB, Arroxela, Hautin, 1571

RECUEIL D'AVCVNS
MOTS ET MANNERES
DE PARLER DIFFÉRENTS
DES DIALECTES DE LA
FRANCE, avec des notes
et des explications
par J. B. BOISSEAU

ADVERTISING

međunarodna

10

1.

1

三

1

Gainerakoak, esan bezalá, inoren testuen itzulpen hertsia samarra izan zen, *Testamentu Berria* delakoarako erabiliko ziren irizpide estuen arabera burutua.⁴⁰ Ido horretatik, TBren aurretitik, dagoen hirugarren idazkiaik, “**Batbederac iaquiteco, eta maius iracurtzeo duen Advertimendua noa le Jesus Christ den lainoaren Legueaten fina, eta gure salvatzeko moiñen bakotza**” Izeneoak (Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 255-273), Jean Kalbin du egile.

Frantsesko bertsioetan Izenburu laburrago batez emana (“Déclaration comment le Christ est la fin de la Loy”⁴¹), Idazki honen Izarerek eta autorearen garantziak berak nekez ahalbide zezaketen itzulpenean berrikuntza gehiegirik tartekezko askatasunik.

Antzeko zerbait esan liteke, orobat, haren ondoan erantsia den “**Testamentu Šaharrac eta berriac iracasten draucuten guciaren sommarioa**” delakoaz ere (Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 274-279).

Frantses edizioetan egile-izenik ez duen “La somme de tout ce que nous enseigne le Vieil et Nouveau Testament” deituriko hau obraren hasieran⁴² Kokatua kaleratua ohi zen edo, bestela, amalera, “Table des matières” delakoaren aurretitik hain preseskí⁴³.

Hitzet haritz euskaraturik eskaintzen da Bibliañ olinarrituriko doctrina eta irakaspenen laburpen moduko hau.

Obraren deskribapena behartuta hemen atal bereizitaz hartzen bada ere, TBren aurkibide gisakoa da haren aurre-aurrean kokatua doan “**Testamentu Berrico liburuën icenac**”. Baina modu desberdinaren.


(40) “Haur bay erranen dut, ecen bethi orholitic nola lainoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi estaudion ez eratchequi: hala egun ahal dudan fidelquiena egun ukana dudala” (Joana Albrete eirregihari zuzenditako gutunean; Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 253).

(41) 1563koan in <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k108678p.image.r=calvin%2C+jean.f10.langFR>.


(42) Iku, esaterako, *La Sainte Bible contenant le Vieil et Nouveau Testament...*, P. Michel - L. Clemensin, Lyon, 1566 (lehen liburukian, 8-9 or.). Orobata, Perrin-ek 1567an Genevan argitaratuakoa Biblia: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536251.image.langFR> 15. paginacion.

(43) Modu horretan dator esku artean dugun 1563ko edizioan ere (<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k108678p.image.r=calvin%2C+jean.langFR.f748>).

TB, Arroxela, Hauñu, 1571



Añico gauega gúticen Creagelca o- ‘Gm. 1.2.’
BATA BEDE RAC IAQVITE.
Berto gúticose pretegatza eta caxca-
lentzuko batzuk mituztuzkoan in-
tzaigaz gúticere gúticose creagelca o-
nola fesku Chifif den Iñakiaren Lcuyarraren
co-estia maztziak zizkizteko oso adurrimendua
fina, eta gure jaihia; zazko moineu alabotza.



LASSOMMEDETOVT
CEQVENNOSEN-
SEIGNE LE VIEIL
ET NOUVEAU
Tibament.

T E S T A M E N T V C A H R A C
etis servicio iracafan ducassem giclatas
fommaria.

Eltametu saharreco liburue iraca-
feten gaizune ecen Alamec; Noce,
Abrahamec, Iiacob-cc, Da-
uid-ec eta berice gure Aitec adoratu
ylan duten Iaincoa, dela egiazuaz
Iaincoabat bera, bothire guetxato eta
eternal : here ontañin handikaritza

Elaménu cahareno liburue iraca-
fén gaizutze cen Alhamen, Noce
Abrahame, Iiac-i, Jacob-e, Da-
uid-e eta berce gure Aitez adoratu
vituen láncoa, dela egiauzko
Iainocarbera, bethore gaizutza era
eternal: bete ontafin gandingatik
era lirra eta heren diradon gaizutza guiazca. Hir-
razz creatu dinuena, ceanginaren gaizutza guiazca helau bai-
tritarrida; eta hura gabe deitale, ikeraten exzu. Cenice equi-
guiazca gaizutza guizutzen era laku guizutza, berca Place-
men beçpala. Era exza nethor hain astularik txarteko, non
harideron, cengutegi egiutzen duena, huelga edo halaz
egiutzen duen.

Guztioz, liburunhez declaratzen dantzante, nola lain-
crean ciuten ondoan, crean vikan queu. Adan lehen
guizutza, beren indudi eta imagina spirituala, hura equi-
guiazcarie gaizutza guizutzen iba. Bana deabru-
ren inudiñaz eta enganior, deobedientziat eror cedil-
ez. Adam beren Creagaztak manamenduan iraginez
eta haustez, beren bekatuz halako kordia eta poço-
na mundura eman vlandu, non barene arrazatze heldu
guztio gure naturaz Iainocaren hiruren era pani-
tziatzen digune batzarra, heriotzera eta damnatione-
suier, eta deabuzuren tyramiaren eta boheretean mo-
neko equi ikeran.

Heldaberri, liburua nobla era excellent hebaic eragin-
tzan dugu, nola Iainocoa lehenengo promentua vikan
ceraué Adans, Abrahami, Iiac-i, Jacob-i, David-i eta
ambiz berce lehenagoi, ezen igorrien lucla dohanai
onezko hizkia. Letus Chihulli Sena eure Salvadorean

TB, Arroxela, Hautin, 1571

L'Evangelie selon St Matthieu, contient Chapitres
XXVII, XXVIII, XXIX, XXX, XXXI, XXXII, XXXIII, XXXIV,
XXXV, XXXVI, XXXVII, XXXVIII, XXXIX, XL, XLI, XLII, XLIII.

- | L E S E P I S T E S | S. | L E S A P O T E R I E S | S. |
|----------------------------------|----|-------------------------------|----|
| Paul aux Romains Chapitres | 19 | Paul aux Hebreux chap. | 12 |
| Paul aux Corintheens, chap. | 16 | Epistre S. Pierre chap. | 5 |
| Paul aux Corinthiens, chap. | 13 | Epistre S. Pierre, chap. | 5 |
| Paul aux Galatiens, chap. | 6 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| Paul aux Ephesiens, chap. | 4 | Epistre S. Jean, chap. | 1 |
| Paul aux Philippiens, chap. | 4 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| Paul aux Colossiens, chap. | 5 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| A I. aux Thessaloniciens, chap. | 3 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| A II. aux Thessaloniciens, chap. | 6 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| Tite, chap. 1. | 4 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| A I. à Timothée, chap. | 3 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| A II. à Timothée, chap. | 4 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| Philemon, chap. | 2 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| aux Hebreux, chap. | 12 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| Epistre S. Jacques, chap. | 12 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| A I. Epistre S. Pierre, chap. | 5 | Epistre S. Jean, chap. | 1 |
| A II. Epistre S. Pierre, chap. | 5 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| A I. Epistre S. Jean, chap. | 5 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| A II. Epistre S. Jean, chap. | 5 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| III. Epistre S. Jean, chap. | 5 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| Epistre S. Jean, chap. | 5 | Epistre S. Jean, chap. | 5 |
| Ephèse ou Ancienne S. Jeanne. | 2 | Ephèse ou Ancienne S. Jeanne. | 2 |

HT, Geneva, Bonnefoy, 1563

Les noms des livres contenus au nouveau Testament, avec la page où ils commencent, & le nombre des chapitres.

NT, Geneva, Bonefoy, 1563;

netan aurkez zitekeelako berezti nahi izan dugu hemen eta, batik bat, oso antz handia duelako 1561eko edizioan agertzen denarekin.⁴⁴

Hiru (lau?) multzotan banatuak agertzen dira baneko liburu guztiaok (ebanjelioak, "S. Paulen epistolac", "Epistola catholicoac" eta, azken hauetako zertxobalt berezirk, Apokalipsia), bakoitzak dituen kapitulu kopuru-erreferentziak alboan doazelarik. Leizarragak kaptulu guztien batuketa ere eskaintzen du. 1561ekoak, bere aldetik, liburu bakoitzaz hasten den orriaren zerbakia.

Bentalde, "Testamentu **Berrico** materien erideiteco Taulá" de-lakoa⁴⁵ ezinbestean behar zen egokitu, euskarako hitzen arabera moldatuko bazea. Egoitzapenerako irizpideak hiztegintzakoena pariko ditugu: alfabetikoki ondozkatuak, bateratu egiten dira frantseko edizioetan⁴⁶ sarrera desberdinetan ematen diren hainbat hitz, bereizten beste zenbait, etab.

Funtseen, halere, berdin-berdinak dira frantseseko taula eta euskarakaz emandakoak.

"**Testamentu Berrian diraden icen propri Hebraico eta Greco batzuen declarationea**" Izeneko taula ere (Linschmann – Schuchhardt 1900: 1990, 1198-1200) ohiko bilakatu zen erreformatuen HTetan. Haren eredukoa dakar, esaterako, aipatu berri dugun P. Michel imprimatzaleak 1566an argitaratutako Bibliaik: "Interpretation des noms propres Hebreux, Chaldeens & Grecs... en la Bible"⁴⁷ (ikus 2. liburuak).

Leizarragarena, noski, laburragoa (agerian da "Chaldeens" ziren hitzak ez zituela aintzat hartu) eta TBko testuaaren arabera taxtutua da.

Jatorrizko taula hartako hitzen bat euskarakoan eman ez bazen, ondoko zerrendan zetorrelako ere izan zitekeen. Hori da, adibidez,

(44) "Les noms des livres contenus au nouveau Testament, avec la page, où ils commencent, & le nombre des chapitres" izena da de Tournes-en 1561ekoak.

(45) Izenburu osoa honela: "Testamento Berrico materien erideiteco Taulá. Lehén kontuak capitulu eracusten du, eta berceac verseta". Iku Linschmann – Schuchhardt 1900: 1990, 1215-1262.

(46) Konparatu, adibidez, Perrin-en 1567ko Bibliaik dakarenarekin: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536231.image.langFR/f1.109>.

(47) Agerian da "chaldéens" horiek Leizarragak ez zituela ontzat hartu bere Testamentu Berrian lantzeko. Iku P. Michel - L. Clemensin-en 2. Iloburukian. Orobata, Perrin-en Biblia: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536231.image.langFR/f1104>.

TABLE DES MATIERES

YEAU TESTAMENT EN NOUVEAU

COUNTÉE

ABREUVE DE LA PLATEFORME EN FRANÇAIS

ADAPTATION DU TEXTE EN FRANÇAIS

</div

"Abba" hitzaren kasua, zelna ez balita zerrenda horretan agertzen baina bai, aldiiz, "Testamentu Berrico hitz eta minçatzeo manera difficult bakoitz batzu bere declarationequin" atalaren hasiera-hasieran.

Ohar bedi, declaratione horretako izen larrien itzulpenerak Leizafragaren ukitua erakusten duela eman balezake ere, beskoiztarren "itzultzale-fideeltasuna" ez dela zalentzatan jartzeko modukoia. Aipatu berria izan den Perrin-en bertsioan azaltzen denarekin erakaztea dugu frogat:

"Amen: hala biz, den, edo eguin dadila"
"Amen, Soit fait, Qu'il le face, ou Soit ferme"

Laburbildurik, bada, eta atalen ordena gorabehera⁴⁸, Testamentu Berriaren ulerpenerako prestuak ziren Irazki horiek guztik barnean harturik (bakanen baten faltarekin batzuetan) eskalni ohi zen Testamentu Berriaren edizioa.

Leizarragak, agerian da, guzti-guztak libururatut zituen.

4.- Gorago adierazi bezala, Testamentu Berriarekin lotura zuzenik ez zuten hainbat idazlan argitaratu zituen Hau(l)tinek obra nagusiaren eranskin gisara, baina ez beti ale guztietañ, ez eta orden bereoan edota tokiko bereoan ere aigitalpenaren barruan.

Vinsonek zioen moduan, "cette dernière partie [esku artean darabilguna, alegia] manque à beaucoup d'exemplaires. Elle comprend en somme les annexes qu'on avait l'habitude, antérieurement au XVIIIe siècle, de joindre au Nouv. Test. à l'usage des Églises réformées" (Vinson 1891-1898: 1984, 6).

Are gehiago: haletakoren bat ABC edo christinoen instrucioneari erantsirik ere Joan Zitekeen jendartera agerzerakoan. Hori da, esate baterako, Vinsonek berak dioena: "Les parties communes aux deux

(48) Vinsonek gogoratzan duen bezala, ale batzuetan (berean, hain zuen) "Testamentu Berrico hitz eta minçatzeo manera difficult bakoitz...", "Guberoaco herrian usangatan ezdiraden hitz bakoitz batzu hanga angora Itzulia", eta "Testamentu Berrico materien erediteco Taulá" liburu guztietan amairan, hots, Konfesioaren amairaren zeuden erantsita (ikus ondoko helbidean argitaratutako erreprodukcioa: <http://www.euskomedie.org/PDFAnit/mono/leizarraga/elizarra.pdf>). BHFeko Arsenaleko alean, aldiiz, TBien aurre-aurrean: "avant le texte même du Nouv. Test." (Vinson 1891-1898: 1984, 6-7).



livres (TBz eta Kalendrera-ABC bildumaz ari da) sont seulement le catéchisme, la déclaration au Roi et la confession de la Rochelle” (Vinson 1891-1898: 1984, 42).

Idazlan hauek 1550. hamarkadaren erdialdetik aurrera hasi ziren TBrekin batera kaleratzen. Zenbaitetan, gainera, C. Marot eta Th. Bèze-ren *Les Pseaumes mis en rime françoise obrarekin* batera. Azken lan honek, halere, nortasun propioa hartu zuen 1560. hamarradan eta, handik aurrera, jarraian aurkeztuko diren ataltxoekin hor-nitua argitaratu zen malizki.

Edukiei dagokienez, eta sarritan azpimarratu den legez, “cette seconde série de textes concerne la vie ecclésiale et la doctrine réformée. Avec la Bible, ces pages forment les éléments constitutifs de la foi et de la vie du chrétien réformé” (Engammare 1991, 374).

Hona, besterik gabe, Testamentu Berriaren zein Pseaumes del-turiko liburuaren “azken parte” hori osa zezaketen atalok eta, orobat, Leizarragak iturri izan zituen bertsioei buruzko argibideak:

Otoitzako eklesiastikoen forma

Testamentu Berriari erantsita kaleratu zen gure artean Kalbiniek idazlan beregain bezala plazaratutako *La forme des prières Ecclesiastiques liburuxoaren* Itzulpena.

Igandetako kultu erlijiosoa taxutzena bidaratu zen argitalpena. Honela diote sarrerako hitzek liburuan barrena agertuko denari dago-klonez: “*igande goicean communiqui forma hunetara néhorc usatzen du*⁴⁹” (Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 1263).

Lanegunetan, aldiz, bestelako omen zen eginkizuna: “*Asteagu-netan, Ministreac on irudi şayón begala exhortatzen du populua otoitzza eguitara: demboraren edo bere predicationean tractatzen duen materialaren araura*” (Idem).

Formaren ondoren, eta igandetako liturgiaren osagarri, bataioa, zena edo afari erlijiosoa eta ezkontza ospatzeko jarraiбideak erantzi zitzazkin libururi; eta azken atal bat galxo daudenak bisitatzeko



OTHOIIZA ECCLESIASTI- CO EN FORMA:

Sacramenduén administratzeko eta Ezcon-
çaren celebratzeko, bay eta erién visita-
tzeo manerarequin.

*Agunguetan, Ministroac on irudi şayón begala exhorta-
tarzen du populua otoitzza eguitara: demboraren edo
bere predicationean tractatzen duen materialaren ar-
aura.*

*Igande goicean communiqui forma hunetara néhorc
uzatzen du.*

OTHOITZA.

Gvre aiutá dela ceriua etalurra egun dituen Iauna-
ren icenean, Amen.

EXHORTATIONEA.

HAurridéic, presenta bedi gutaric batbedera Iauna-
fren maiteitate handiaren eta goraren airizinean bere
falten era bekatuengi azinazzo confessionerequin, eta
barne bihorrez zirreiquiren şayenik orain eranan di-
tudan hirzey.

CONFESSIOENA.

IAinco Iaun, Aita eternal eta bothere guicitacoa,
confessatzen diagu eta egiazuqui egaoguzen hiru Ma-
tiefate fainduaren airizinean, eeen bekatore gaichoac e-
ta misericordia garela, in iquitareran eta corruptionetan
concebituak era forthuac, gairizqui eguitara emanac, yn-
gui eguitaracor ez denigayac: era gure virio eta egi-
tate gaichtoz hiru manamendu sailduen iragaitic eta
A

(49) “On use” diote frantseseko bertsioek.

betebeharraz. Orobak euskarazkora igaro ez zen hiru orrialdeko otoitz batez amaitzen ziren frantseseko bertsio ezagun zembait (1552, 1558 eta 1563).

Ohi bezala, idazlanak ezagutu zituen argitalpen anitzetan⁵⁰ egon izan da Leizarragarenaren egiazko iturburua aurkitzeko zaitasuna, besteak beste, edizio ez erabat berdinak (eta haindako batzuk, aski ezezagunak) kalerautu baltziren ondoko urreetan. Kontuak zailago bil-katzeke, ezin ahalaz daituke edizio batetik bestera buruzten ziren aldaketak ez zirela beti eta ezinbestez hurrengoetan agertzen.

Halere, identifikazioaren atalean ezer lortuko bada⁵¹, xehetasun horien bitartez baino ezin da jatorrizko ezagutza iritsi. Leizarragak itzuli behar zituen testuekiko normalean erakutsi ohi zuen leialtasunak, bestalde, honako honetan ere frogantzaen berra ekar dezakeela pentsa daituke. Zilegizkoak, beraz, Leizarragaren *Otoitzza ecclesiasticoen forma: Sacramenduén administratzeko eta Ezconçaren celebratzeko, bay eta erién visitatzeo manerarequin* bertsioda⁵² frantsesetxe izan zuen ereduarekin bat zetorrera susmatzen.⁵³

Ildo horretan, argitalpen guztien faltak ergozten duen erkaketa zehatzta ezaugarririk multzo batera muga liteke Leizarragaren itzulpena zein ediziotsa oinarritu zen jakitera hurbildu ahal izateko. Eta akats nabarmenegiak dituen arren (ez du ezagutzen, besteak beste,

(50) Ezagunen artean, ondoko urretoakoak ditugu: 1542, 1545, 1547, 1552, 1558, 1559, 1562, 1563, 1566 eta beste hainbat. Bonnefroy-en 1563koa, esate baterako, helbide honetan kontsulta daituke: http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k10867_92.image.langFR_1519,pagination. 1562ko edizio bat, bestelako datun gakea, berriz, honetan: http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k11455_2,image.langFR_152,pagination. 1552koa, horako honetan: http://www.euskkomedia.org/PDFAn1mono/leizarraga_leizarraga_biblia.pdf.

(51) Leizarragak erabil bide zuen bertsioaren karietara, komentigarriria da aurreko lan batean (Salaberri 2007) aurreratua datazio-hipotesia zuentzea, hasiera batean Jatorrizkoztat hartutakoak (hots, 1552koak) hainbat nabardura baititu beskoiztarraren eskuetan egon zen edizioa bestet bat izan zela penituarazteria daramatenak.

(52) Iku http://www.euskkomedia.org/PDFAn1mono/leizarraga_leizarraga_biblia.pdf.

(53) Testamentu Berrian ez bezala, Leizarragak askatasun-puntuta erakusten du itzulpenetan. Ez da sekretu bat, esaterako, frantseseko dehontz hitza euskaratean, testuan eman nahi zaien esanahia ongi har dadiñ, berak sinonimo bat tarteztzen duela: "denuntiation eti declaratii" (Linschmann – Schuchardt 1900: 1283). Edota "charitatezco" hitzarekin aski zuenean, Leizarragak "charitatezko eta equinibidezco" idazten duela (Linschmann – Schuchardt 1900: 1290, 1292).

LA FORME DES PRIÈRES ECCLESIASTIQUES: 1552

S A TOUER-PULITZAE, NOUS CONFESSIONS
A R RECUEGNAILLIOUS LENS CONFESSIONS
S I O N A A D I C U , P R E C T E R E C U L
M E S PRIÈRES, Q U ' N CHACUN DEVONS LE
C O N F I T I O N

M PRECIEUSE DECHURE LA FAÇCE DU SEIGNEUR,
A UTE CONFÉDITION DE LA FAÇCE DU SEIGNEUR,
A UTE CONFÉDITION DE LA FAÇCE DU SEIGNEUR,
A UTE CONFÉDITION DE LA FAÇCE DU SEIGNEUR.

N O U R E A U D E LOIN COUTURE MÈS PAROLLES.

A UTE CONFÉDITION DE LA FAÇCE DU SEIGNEUR.

B O U R L E S D I M A C H E S A U M A I N D E

A V E C L A M A N I E R E D A
S I A S T I Q U A S ,

P R I È R E S E C C L I E

L A F O R M E D E S

9

LA FORME DES PRIÈRES ECCLESIASTIQUES: 1563

C O N F I T I O N
P R I È R E S
B X H O A T A T O N
D I S P E R S I O N
E X E R C I C E
N O U F E R A I R D E G E T A N N E M
P R I È R E S
P R I È R E S
L A F O R M E D E S

A U T O D I M A C H E S A U M A I N D E

A V E C L A M A N I E R E D A
S I A S T I Q U A S ,

P R I È R E S E C C L I E

L A F O R M E D E S

9

134 –

1552ko edizio aberatsa), Cunitz, Baum eta Reuss-ek apalatu obra (1893-1900) har liteke abiapuntu.

Haren arabera, 1562tik aurerra balino ez zen lehendabiziko orrian "Phiere" ("Otholita" Leizarragarenan⁵⁴) eta "Exhortation" ("Exhortatione" beskoiztarrarenean) agertzen hasi. Ordura arte, "Confession" hitza zen atalaren izenburu bakarra (gero "Exhortation" hitza jarriko zen lekuari kokatua)⁵⁵. 1562tik aurera, aldiz, hurrengo ahpaldiaaren izenburu bilakatu zen, Leizarragarenan bezala ("Confessionea").

Badrudi, beraz, Leizarragaren eredu nekez izan daitekeela 1562ko balino lehenagokoan⁵⁶, urte hartako edizioan hasten baitira Beskoitzeakoaren lanak islatzen dituen testu-ezaugarririk agerizten. Data horrek berriro jarriko gintuzke Leizarragak Testamentu Berria itzultzeko enkargua jaso zuen urretan inguruau. Edo beste modu batean esanda, itzultzeko luzatu zitzalkion edizio guztiek Genevan kaleratutako azken-azkenak izan ziren, 1562-1563koak hain zuzen.

Erikaketaren maila zehatzera jaitsiz, esku artean izan ditugun *La forme des prières Ecclesiastiques* izeneko liburuaren edizioen artean, 1562an eta 563an argitaratutakoak dira Leizarragaren bertsiotik hurbil den daudenak, elkarren osagarri dalliran. Hau da, beskoitzarrak ezkontideen izenak adierazteko 1562koaren "N.N." laburdura darabilen bitartean, 1563koan orri-buruen tituluengatik eredu aurkitu duela dirudi⁵⁷.

(54) Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 1263.
(55) Iker, adibidez, <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1086533.image;r=pseum.es:f248.pfiltration.langFR>

(56) Ez da zaintza faltarik, ordea. Hala, ezkontideen izenak adierazteko laburdurak, 1542, 1545, 1563, 1566 eta 1567ko edizioetan ez bezala ("N. et N." agertzen baitute), Leizarragarenan eta frantseseko gainerakoan "N. N." gisara azaltzen dira. Berdin esan liteke Leizarragak idazten duen "Evangelio salinduaren arauera" pasarteaz (Linschmann – Schuchardt 1900: 1289), 1562, 1563 eta 1566ko edizioek ez baitute -Cunitz, Baum eta Reuss-en Iritz- "saindu" hitza eskaintzen (Bonnefoyaren 1563koak bai, dena den). Edo, azken adibide bat ematearen, beskoitzarrak "Elija primitivoan" dioen bitartean (Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 1285), 1559tik aurrezko edizio frantsesek ezaubatua omen zuten "primitibo" kalkifikatua.

(57) Lehen atalean, etseenplu baterako, ezker aldean "Prieres", eskuin aldean "Ecclesiastiq"; Leizarragarenan "Otholita" eta "Ecclesiast." . 1562koan, berriz, guztietan "Prieres".
(60) Iker http://www.euskomedia.org/PDFAnt/mono/leizarraga_biblia.pdf.

Ez da falta desberdintasunik, ordea. Leizarragak oso gogoko du ahpaldiaik "Iesus Christ hire Seme gure launaren icenean" formula-rekin bukatea. "Friedu" diruditenek, berriz, erabat berdina ez den "par iceluy Iesus Christ nostre Seigneur" formula darabilte horren ordez. Egia esan, Leizarragak berak kasu gehienetarako orokorturilkor forma izan liteke, ez baita, izan ere, gainontzeko frantses edizioetan agertzen⁵⁸.

"Amen" delakoaren erabiliera ere ez dator beti bat frantseseko bertsioetan eta Leizarragarenan (ez eta frantseseko artean ere).

Amaitzeko puntuari ere badira aldeak: Leizarragaren bezain gor-din bukatzen da 1563ko edizioa, hots, amaitu dela adierazi gabe, baina Catechismean ohiko ziren otoltzak Jarraian erantsiz. 1562ko edizioa, aldiz, "Fin des prières Ecclesiastiques" esanez bukatzen da. Leizarragarenan bezala, hurren jasotzen duen idazlana *Catechisme* izenekoa da.

Baina, berriro diogu, berdin-berdin den ediorik aurkitu ez bada ere, 1562-1563 urteetako edizioetan (edizio bakar batean, aksaso?) Jarriak ditu oinak Leizarragak euskaraturatuko lan honiek.

Katekismoa

T'Brien barnean eta Otoitzako eklesiatikoen forma delaikoaren amaineran erantsia ezzagutu dugu euskaldunok Kalbinetik 1545ean liburu desberdin gisara kaleratutako *Le Catechisme de l'Eglise de Genève* liburuaren⁵⁹ Itzulpena⁶⁰.

(C'est à dire, le formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté, fait en maniere de dialogue, ou le Ministre interroge, & l'Enfant respond), haurrek kristautasun erreformatuan heztekoi modu pedagogenburuaren beraren bigarren zatiak zehazten duen moduan (58) Cunitz, Baum eta Reuss-en arabera (1863-1900, t. VI, 174 oharra), honela banatzen da erabiliera: "Iesus Christ" (1558), "Iesus Christ etc." (1542, 1547 –eta, zenbatetan, 1562, erantsiko genuke guk), "Iesus Christ nostre Seigneur" (1559-1563), "Iesus Christ nostre Seigneur, Amen" (1545).

(59) Iker Cunitz, Baum, Reuss [ed.] 1863-1900, t. VI, 1-160.

(60) Iker http://www.euskomedia.org/PDFAnt/mono/leizarraga_biblia.pdf.

gogikoa da obra honek garatzen duena, egokiko neutrut eta taxututako elkarriketen bidez. Urteko lgandetan zehar (berrogeita hamabost lgandetan, hain zuzen) lantzeko eta ikasteko dosifikatu, sinesmen berriaren oinariak sistematikoki barnerarazteko tresna eraginkorra eskaini zuen Kalbinex Katinxma hornen bitartez.

Katinximak frantsesez izan zituen edizioak direla eta, zalla gertutu da Leizarragak itzulpenerako erabili zuen eredu identifikatzea. Oso antzekoak dira guztiek eta oso antzekoak dira, esaterako, eskuragarri ditugun lehan Crespin inprimatzaleak prestatu zituenak (Geneva, 1552 eta 1554), editorerik gabe Haleratu zen 1562ko⁶¹, hurrengo urtean Bonnefoyk argitara eman zuena (Geneva, 1565) eta, azkenik, F. Estienne inprimatzalearenaren (Geneva, 1567). Edozein gerta zitekeen, hortaz, beskoitztarraren erreferentzia.

Alabaina, ezin baitzer daiteke ikusmiratik Leizarragak Testamentu Berria eta beste obra batzuk prestatzeko erabili uste zituen frantses testuok identifikazio-lanaren norabidea itsu dezaketela oharkabeen, posibilitateen artean beti balta itzultzaleak ezagutzen duen beste hizkuntzaren batean idatzitakoa ere iturri gisara erabili izana.

Hori xe bera da, gure iritziz, Leizarragaren *Catechisme, cein erran nahi baita, Iesus Christen doctrinán haourrén iracasteco formá, non Ministreac interrogatzen baitu, eta haourrac ihardeten* izenekoaren iturriaren gakoa, izan ere, frantseseko edizioren bat baliatzeaz gainera, Leizarragak latinezko bertsioa ere erabili baitzuen.

Kalbinen *Catechismus Ecclesiæ Genevensis, hoc est, formula erudiendi pueros in doctrina Christi* izeneko Genevan argitaratua izan zen 1545ean, 1547an, 1550ean, 1551n, 1563an (latinez eta grekeraz honako hau), etab.

Leizarragak bereari eman zion izenburuak berak erakusten du frantsesezko bertsioaren bat izan zuela begien aurrean, zein izan zen ez badakigu ere.⁶²

Latinezko bertsioen bat erabili zuela ere aski argi geratzen da itzultzallearenak linduketen "askatasunak"⁶³ azterten baditu.

Hona hamar bat adibide, horren frogagarri⁶⁴:

- "Le Ministre: Mais quelle est en somme la substance de ceste cognissance?"
- "Minister: Nunc, quaenam sit hulus cognitionis summa, paucis audire laboursqui engun nahi niuec" (1294)
- "L'enfant: [...] et aussi qui est tiré de la pure doctrine Apostolique"
- "Puer: [...] et quod vel ab ore apostolorum excepta fuerit, vel ex eorum scriptis fideliter collecta"
- "Haourra: [...] eta ceren Apostolu berén ahotic, edo hayen scributae- taric ikikia eta Hartua baita" (1294)
- "Le Ministre: Recite ce qui y est dict"
- "Minister: Recita"
- "Ministre: Eya dansçugun hartan erraiten dena" (1294)
- "Le Ministre: Quelles?"
- "Minister: Eas mihi recense"
- "Ministre: Eya dansçugun nola" (1295)
- "Le Ministre: Touchant des diables et des meschans, luiy sont-ilz aussi bien subiectz?"
- "Minister: De impis autem et diabolis quid sentierimus? An eos quoque dicemus illi subesse?"
- "Ministre: Deabruéz eta galixtoéz cer erranen dugu, hec-eere haren manuco dirade?" (1297)
- "L'enfant: Honnore ton Pere et ta mère"
- "Puer: Elius initium est: Honora patrem et matrem"
- "Haourra: Haren hatsea da, Ohoratzac eure alta eta ama" (1321)

(63) Gorago ikusi bezala, nobalalteko "askatasuna" erakutsi zuen Leizarragak erlijio arloan agertzen ziren hainbat hitz –garalko euskaldun arruntentzat– ezezagun (kultismoak, barbarismoak...) ulertatzeko formuak erabiltzaan. Horrela, frantseseko "fondament" hitza ematerakoan, beskoitztarrak "fundamenta eta lehen hatsea" idatziko du (Linschmann – Schuchardt 1900, 1990, 1294). Haurren ulemendimallara ere egokituko du hainbat pasarte: latinezko "edisse hoc mihi paulo fusius" eta frantseseko "declare moy cela plus au long" "decidra legadac horiclaroquichago" euskara-tutuko du (Linschmann – Schuchardt 1900, 1990, 1298; gureak dira letra erzanaik).

(64) Euskara-zkiko pasarteen ondoren parentesi artean doan zembakiak, Linschmann – Schuchardt 1900, 1990 edizioaren arabera emändako orrialdea adierazten du.

(61) Iku http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k11455_2j.image.t80.langFR.page.

(62) Uste izateko da TBrekin batera euskaratu behar zituen lantxoak ez zitzaiola banaka etorri, ohiko argitalpenetan jasoak baizik. Era nahi diren aldaeraekin izan arren (*Catechisme + La Forme + Confession, Catechisme + Confession, etab.*), horrek esan nahiko luze data berean argitaratuak eta, agian, liburu bat eta beharra osatuz intsi zitzaizikola guztiak. Honako honetan, oro har eta galimontzeko iturrien ildoan, 1563ko edizioaren aldeko apustua egin lezake hipotesiaz...

- “Le Ministre: Est-ce que tout le commandement?”
- “Ministre: Nihilne amplius restat de praeecepto?”
- “Ministre: Manu horretaric bada deus gehiago?” (1322)
- “L’enfant: Puis que noz corps et noz ames sont Temples du saint Esprit, que nous les conservons en toute honestete. Et ainsi que nous soyons chastes, non seulement de fait, mais aussi de desirs, de paroles, et de gestes. Tellement qu'il n'y ait nulle partie de nous souillée d’impudicite”
- “Puer: Ex quo tum corpora nostra, tum animae tempia sunt spiritus sancti, ut castam utriusque puritatem peauemus: ac proinde non extem tantum flagiti abstinentia pudici simus: sed etiam corde, verbis, gestu denique corporis et actione. Denique corpus ab omni lascivia punum sit, animus ab omni libidine: ut nulla pars nostri impudicitiae sordibus sit inquinata”
- “Haourra: Gure gorputzak eta arimá Spiritu salinduaren temple diradenez gueroz, bata eta bercea chahu eta pur beguirea ditzagun: eta garen caste, ez equinez solament, baina desirez, hitzez, eta gtuz: hala non, piillardirçari dagocan maneraz gutan deus maculaturic eztén” (1323)
- “Le Ministre: Quelz?”
- “Ministre: Quae sunt illa?”
- “Ministre: Cem dira hec?” (1345)
- “Le Ministre: N'en y a il pas certaine probation?”
- “Ministre: Possisne mihi scripturae testimonio id comprobare?”
- “Ministre: Scripturaz hori eracuts ahal eçäque?” (1355)

Hainbat kasutan, euskarako eta frantseseko bertsioak bakanrik alderatuz gero, ministroaren eta hauraren arteko elkarritzetak Leizarragari gogokoegi ez zitzaloz taxu handiegia zuela eman lezake.

Agerian da, beraz, euskarako itzulpena osatzean presente izan zituela bai frantseseko bertsioa eta bai latinezkoa.

Gainerakoaz den bezainbatean, blixkerien ontiñako utz litke ondoko oharpena, hots, frantseseko eta latinezko katinmek amale- ran zeramatzen otoliz sortatxoa gabe kalerau zela Leizarragarena. Klimaketa horren truke, ABC edo christinoen instructionea delakoan tartekeatu zituen gero haletako gehienak⁶⁵.

(65) “Goliceco orationea” eta “Psal. 143” (Linschmann – Schuchardt 1900; 1990, 1404-1407), “Lectionearen studiartzaco errateo orationea” eta “Psal 25” (idem, 1408-1410), “lan altzinieco ohoitzá” – “Psal. 104” barne- (idem, 1410-1411), “lan ondo ohoitzá” – “Psal. 117” barne- (idem, 1411-1412) eta “Arrateco orationea” (idem, 1413-1414).

Konfesionea

Normalean ahaztu egiten da kalbindarrek beren tesi erlijiosoak finkatzeko eta jakinarratzeko premiak honako idazki larri hau izan zuela ondorio nagusi. Bertan dira kristau sinesmen erreformatuaren funtsezko doktrina-hariak.

Zehatzago adieraziz, “Arroxelako Fede-Konfesioa” ere deitua (1559) eta Jean Kalbinek berak idatzia, *Confession de Foy, faite d'un commun accord par les Fracois, qui desirient faire selon la pureté de l'Evangile de notre Seigneur Iesus Christ*⁶⁶ edo, Leizarra-garen euskaran, *Iesus Christ gure lauaren Evangelico doctrina puraren araura vicitzeco desira duten Franceséc consentimendu commun batet berén fedearaz eguin duten confessionea* izeneko dokumentu honek berrogei atalaetan xehetzen ditu federatzuaren gako erlijioso-ideologikoak⁶⁷.

Bai edukiagatik eta bai autore izan zuenagatik, testu arras Itxia, bistan da, ñolako bariaziorik onartzen ez zuena. Itzultzaleek, beraz, Geneva onetsitsako edozein edizio har zezaketen euren lana burutzeko, berdin-berdinak baitziren guztiaik.

Edizioen arteko ezberdintasunak, zeudenetan, beste estilo bat-koak ohi ziren; beskolatarrarena lekuko.

Egia esan, Leizarragaren argitalpenetan Testamendu Berriaren azkenengo orrietan kokatutik egoteak ez dio gehiegi lagundu egungo irakurle euskaldunari idazkiak duen balio eskergaz ohartzen. Baina kokapenaren “arazo” hori gorabehera, besterik da nabarmenarazi nahi genuen desberdintasuna. Izatez, imprimatze-premiekin, paperezko pleguak aprobatzatu nahiak edota azken orduko nahasmenduren batek behartuta, kontua da aski desitxuratutik kaleratu zela euskara-zko Konfesionea, hau da, hasierako orrialdeak gabe eta zegokion azala eta azalaren ifentzua beste argitalpen beregain batzen bukaera-ra desplazatuta, hots, hara eramana eta, testuarekin inolako ezkon-

(66) Graña-ñabarduraren bat kentuta (izemburuan: “faite”, “faicté” zein “fáite”), berdinak dira kontsultatutako edizio guztiak izenburuak.

(67) Iku http://www.euskomedia.org/PDFAnitymono/elizarraga_biblia.pdf.

tzerik ez bazuen eire, harekin kaleratua. Horrek, zer esanik ez, lausotu baino ez zuen egin idazkiak zeukan garrantzia.

Jakinha, edizioa zuzenago eta ulerterrazago suertatu zatekeen bal-din, gure artean autonomoa izatera iritsi ez zen idazlan honek⁶⁸ beste inon aurkitu ez dugun edukari buruzko azalpen labur interesgarria orri-sortaren atarian eman izan balu.

Azala izan behar zukeenaren ifrentzuan dagoen "Advertimendua"⁶⁹ izenekoaz ari gara, Linschmann eta Schuchhardt-en edizioan ABCaren azken-aurreko orri gisara datorrena⁷⁰ baina, Izaez, Konfesioneari dagokiona⁷¹.

Edonork ikus dezakeen bezala, aipatu orri horren aurreko aldean, liburuttoaren izenburua, azpititulua (erregearen gutuna iragarzten duena) eta TBlik hartutako alpamen bat (1. Pier. 3, 15) datoz eta ifrentzuan, berriz, "Advertimendua".

Agerian da federreformatura iragan zirenentzako ohar argigarria dela, Leizarragak berak prestatura zur asko⁷¹. Hala dio: "Cer cergatic Religioneocoéc utzi edo cambiatu ukán dutén eta cer daducaten ia-

(68) Azala izan behar zuenari eman zitzaien diseinuak eta errotulazioak Konfesionea formatu txikiko argitalpen laburra (bi dozena orrialde) baina beregaina izan zitkeela adierazten dute, ez balizun -gehienet ere- inprimatzalearen, dataren eta argitaltokiaren datuak bildu ohi zituen inprimatzeko-kutxaren falta baizik. Luzaagoa (50 orrialde) baina moldie beregailn bereko da, esaterako, 1561eko Confession delakoa (http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k7935_30.image.fl.langFR). Edo, aukerak mutritzuk ez utzeko (Leizaraga-Hautin bikoteak berdintsu plantea balizezkaeen argitalpena), bestie edizio batzuek ere errepresa lehioke: 1562ko batean, adibidez, Confessioak ematen dizkio hasiera eta titulua *fede-konfesioa* bera, Forma, Katekima luzea eta katekima laburra barne hartzen dituen obrari (http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1145_52.image.fl.langFR).


(69) Horrela kokatua kaleratu bide ziren 1571ko aleak. Edizio akats hori dela eta, sarean kontsulta daitzeen TB delakoa ere orri hori gabe azaltzen da.

(70) Idazki hauek beste edozein argitalpeni erantsita ere joan zitezkeen eta, inprimatz-beharren arabera, Joan ohi ziren. Aski da Vinsonek deskribatzen duen ABCari errepatazea horretaz jabetzeko. Honela amaitzen du Kalendera eta ABC delako iburunki berean bilduta dituen alearen deskribapena: "le premier ft de la feuille K est occupé au 1^e par le titre *Déclaration au Roi* etc., au 5^e par un *advertimendu*, puis vient le texte de la *Déclaration* (2 fts) qui suit la *confession de foi* jusqu'au ft L 7 v^e; le dernier ft, L8^e, contient un tableau des chiffres arabes et romains; le v^e de ce feuillet est blanc" (Vinson 1891-1898: 1984, 41-42).

(71) Frantsezkoko edizioetan ez da horrelakoik.

CONFÉSSION DE FOY, FAITTE D'VN COMMUN ACCORD PAR LEZ, FRANCOIS,

Qui desirer viure selon la pureté de l'Euangile de noltre Seigneur Jésus Christ.



M D L X I.

quin nahi duenac iracur beça Confessione haur gogoatuqui” (Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 1440).

Bestalde, Konfesionearen atarian dagoen “**Regueri egun igan** **gøyon supplicatione bat**” izeneko gutuna⁷² ez da Leizarragak idatzi, inoiz besterik adierazi izan bada ere. Kalbinen ekimenez sortua, Frantzisko Henrike II.ari egindako esikabide gisako hori Théodore de Bèze teologoak erredaktatua bide da⁷³. Beskoitztarrak euskaratu baino ez zuen egin. Hitzez hitz euskaratu, alegia.

Baina itzulprena hitzez hitz burutu zuen aren, Leizarragak ez zion uko egin noizean behin “bere” logika erabiliztear! Obratxoaren azaleko alpamena (1. Pier. 3, 15) euskaraz ematean, esaterako, beskoitztarrak TBrako itzulia zuen bertsioari segitu zion eta ez aurorean zeukan frantsesezko testu irenduari:

- “Soyez tousiours appareillez à répondre à chacun qui vous demande raison de l’espérance qui est en vous”.

“Caretens bethi prest lharestera suetan den sperançaz l’raçoin galde egutien duen guciari, emetassunequon eta reverentiarequin” (gurea da letra etzana).

Frantsesezko pasartea, esan gabe doa, “avec douceur et reverence” hitzezin osatua zetorren H/Tetako testuan ere (Ikus 1562 eta 1563ko edizioak).

Anelkdata gjsa, gogoratu behar da erregeari zuzendutako gutun hau ez zela 1559an idatzia izan⁷⁴, 1560an baitzik. Kalbinen obaren editoreek nabarmendu legez, “à cette époque les Français ne comptaient l’année qu’au 25 Mars. L’année 1559 ici mentionnée correspond donc à notre année 1560, l’édit (Amboiseko) étant du

(72) Gutunaren izenburua, izatez, honako hau da “Iesus Christ gure launaren Evangelioco puritatearen araura vicitzeco desira duten Franceséc. Regueri”. Guik, dena den, imprimatzeraoan tolka karpo geratu zen Konfesionearen azpititulua hobetsi dugu gutunaren izentzak (Ikus Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 1439).

(73) Edonola ere, “les François qui désirent vivre selon la pureté de l’Evangile de Notre Seigneur Iesus Christ, au Roy” izeneko gutun nau Kalbinen idatztako obren artean agertzen da eskuatki (Cunitz, Baum, Reuss [ed.], 1893-1900, t. IX, 737-740; orain: http://archive-ouverte.ung.fr/Calvin/bf_453x_37.pdf).

(74) Hala dio hainbat ikertzaile okertzena eraman duen gutunaren barneko esaldiak: “aurthen 1559. Marchoañ Ambosien emanic, que Malestreteac publica eraci duen Edictaren arauta” (Linschmann – Schuchardt 1900: 1990, 1355).

11. L’adresse au Roi, rédigée peut-être bientôt après, a conservé le chiffre 1559, tout en disant: l’an présent, l’usage ne tenant déjà plus compte de cette coupe arbitraire” (Cunitz, Baum, Reuss [ed.], 1893-1900, t. IX, 737, 2. oharra).

5.- Honalho erakutsi denaren arabera, ez dirudi Leizarragaren “iturriak”, guztia, 1562a baino lehenago argitaratuak izan zirenik; baina ez askoz beranduago ere. Ute hartan edota hurrengoan kaleraututako edizioetan leudeke, ziar asko, Leizarragak euskarazko bertsioak burretzeko ballatu zituen obra guztia, Testamentu Berriatik hasita Konfesioa delakoraino, Otoitz eklesiastikoen forma eta Katixima lege-nekoetatik igarota.

Data horiek, gorago esan bezala, Leizarragak Eliza Errreformatuarren funtssezko testuak itzultzeko enkargua jaso zuen urtearen inguruaren jarriko gintzukete, zalaniztanik gabe. Eta enkargua jasozeaz batera, beskoitztarrak, burutu behar zuen lanaren lehendabizikoa berme gisara, imprimategi garrantzitsuren batetik atera berri ziren edizio fidagarriak izango zituen eskuen artean. Zilegi da pentsatzea Genevako zeln Lyongo imprimategiren batean argitaratuak izango zirela lanok, hotz, ortodoxia erreformista ongi zaintzen zen leku batekoak.

Ez da erraza, tamalez, imprimatzale guztien –ez eta importanteen– edizio ororen berri izatea eta, are gutxiago, arakatu ahal izatea, orduko urteak ilunpetan ezkutatuak geratu badira, lailo ilunagoetaan –ahanztuztaren lainoetan, malizki– geratu baitira garai haletako plegu eta argitalpen asko eta asko. Eta ezaguna da, ahanzturaz gainera, suaren eta herraren bortitza ere jasan izan zutela orduko eta sinelemen hartako protagonistek, halia frantzesek nola euskarazkoek, halagiza-haragizkoek nola paperezkoek.

Nolanahi ere den, orain arteko astarna askok Genevako Bonnefoy-ren imprimatzalearen 1563ko edizioetara hurrerarazten dute Leizarragaren itzulpen-lanen erreferentziak bilatzean, eta ez, prebisioguztien kontra, handik urte batzuetara beskoitztarraren imprimatzaille izango zen Hau(l)tinenetara.

Baina horren erabateko egiaztapenak planteatzen dituen identifikasi-bideek urrats berriak eskatzen dizkiote jadanik papererean espaziorik gabe geratu den lan honi.

Iturriak

Calvin, J., (Ikus Cunitz, Baum, Reuss [ed.] 1863-1900)

Calvin, J. - Église Reformée de France:

La Bible, qui est toute la Sainte écriture du Vieil et Nouveau Testament, autrement l'ancienne et la nouvelle Alliance : le tout reueu et confere sur les textes hebreus et grecs, 1561, Lyon, Jean Tournes (Orain: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536221.image.f1.langFR#>).

La Bible qui est toute la Sainte Ecriture: contenant le Vieil & le Nouveau Testament, Autrement la Vieille et la Nouvelle Alliance, Geneva, François Perrin - Antoine Vincent, 1567 (Orain ondoko helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536231.image.f1.langFR#>).

Bible qui est toute la Sainte écriture contenant le vieil et le nouveau Testament, autrement la vieille et la nouvelle Alliance, Geneva, François Estienne, 1567 (izenburua gorabehera, liburu honetik Bibiliarik ez, balzik Les Pseaumes mis en rime françoise eta bestea dakartzia bere baitan) (<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536271d.image.langFR#>).

La Sainte Bible contenant le Vieil et Nouveau Testament: ou, la vieille & nouvelle Alliance, Lyon, Pierre Michel - L. Clemensin, 1566 (Lehen liburu: [http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k79025x.r=langFR;bigarrun.liburu1\[partie du NT\]](http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k79025x.r=langFR;bigarrun.liburu1[partie du NT]): <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k790268.r=langFR>).

Le Nouveau Testament, c'est à dire, La nouvelle alliance de nostre Seigneur Iesus Christ. Reveu & corrigé de nouveau sur le Grec, par l'avis des Ministres de Geneve. Avec Annotations revées & augmentées par M. Augustin Mariorat, Geneva, Jean Bonne-Foy, 1563 (Orain helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k108678p.r=calvin%2C+jean.langFR>).

* * * * *

Catechisme. C'est à dire, le formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté, fait en maniere de dialogue, ou le Ministre interroge, & l'Enfant respond, l.g., arg. g., 1562 (Orain ondoko helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k114552>). 1.pleinepage.r=calvin%2C+jean.f2.langFR).

* * * * *

Catechisme, C'est à dire, Le formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté, fait en maniere de dialogue, ou le Ministre interroge, & l'Enfant respond, Geneva, Iehan Crespin, 1552 (Orain helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536271d.image.f156.lanqFR>).

* * * * *

La Forme des prières Ecclésiastiques: avec la maniere d administrer les Sacremens, & célébrer le mariage, & la visitation des mala-

ondoko helbide elektronikoan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1086533.image.r=pseautum es.langFR.f287>

Le Catechisme, C'est à dire, le formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté: fait en maniere de dialogue, ou le Ministre interroge, & l'Enfant respond, l.g., arg. g., 1562 (Orain ondoko helbide elektronikoan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k114552>). image.f80.lang FR.paginacion).

Le Catechisme. C'est à dire, le formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté, fait en maniere de dialogue, ou le Ministre interroge, & l'Enfant respond, 1563, in Marot, eta Beze, Les Pseumes mis en rime françoise par Clement Marot & Theodore de Beze, l.g., Iean Bonnefoy, 1563 (Ikus honako helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1086792.image.langFR.f359>).

Le Catechisme, C'est à dire, le formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté: fait en maniere de dialogue, ou le Ministre interroge, & l'Enfant respond, 1567, in La Bible qui est toute la Sainte écriture [...] , Geneva, F. Estienne, 1567 (<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536271d.image.f131.lanqFR>).

* * * * *

Confession de foy, faite d'un commun accord par les François qui desirent vivre selon la pureté de l'Evangile de nostre Seigneur Iesus Christ, l.g. [U. Saugrain, Lyon], 1561 (<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k793530.image.f1.langFR>).

Confession de foy, faite d'un commun accord par les François qui desirent vivre selon la pureté de l'Evangile de nostre Seigneur Iesus Christ, l.g., 1562 (<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k114552>). 1145 52.image.f3.langFR).

Confession de foy, faite d'un commun accord par les François, qui desirent vivre selon la pureté de l'Evangile de nostre Seigneur Iesus Christ, 1567, in La Bible qui est toute la Sainte écriture contenant le vieil et le nouveau Testament, autrement la vieille et la nouvelle Alliance, Geneva, F. Estienne, 1567 (<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536271d.image.f156.lanqFR>).

- des, l/g., arg/g., 1552 (http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k52960t=calvin%2C+jean.langFR)
- La Forme des prières Ecclesiastiques, avec la maniere d administer les Sacremens, & celebrer le mariage, & la visitation des malades, Geneva, Jean Crespin, 1554. Orain ondoko helbide elektrolikoan: http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1086533.image.r=psebaum.es.langFR.f51*
- La Forme des prières Ecclesiastiques: avec la maniere d administer les Sacremens, & celebrer le mariage, & la visitation des malades, 1562, in Confession de Foy[...], l.g., 1562 (Orain ondoko helbide elektronikoan: http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k114552j.image.langFR.f52.paginat).*
- La Forme des prières Ecclesiastiques: avec la maniere d administer les Sacremens, & celebrer le mariage, & la visitation des malades, 1563, in Marot eta Beze: Les Pseaumes mis en rime francoise par Clement Marot & Theodore de Beze, l.g., Jean Bonnefoy, 1563. (http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1086792.image.langFR.f519.paginat)*
- La Forme des prières Ecclesiastiques: avec la maniere d administer les Sacremens, & celebrer le mariage, & la visitation des malades, 1567 in La Bible qui est toute la Sancte scripture [...], Geneva, François Estienne, 1567 (http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53627d.image.langFR.f119.paginat).*
- Calvin, J. - Église Réformée de France-Leizarraga, J.: *Iesus Christ gure launaren Testamentu Berria, Arroxella, P. Hautin, 1571* (Orain obraren edizio faksimila: Iruña, 2007, obraren argazkiak honako helbidean: http://www.euskomedea.org/PDFant/monoleiz/aрагa/leizarraga_biblia.pdf)
- IESUS CHRIST GURE IAUHAREN TESTAMENTU BERRIA.** Othoitza eclesiasticoen forma, Catechismea, KALENDRENA, ABC edo Christinoen Instructionea (Arroxela, P. Hautin, 1571) in Th. Linschmann eta H. Schuchardt (ed.), 1900: 1990 (Titulu guztien bertsio elektronikoak ondoko helbidean: http://klasikoa.arniamira.com/alfa.htm#L).
- Kalendrena, Arroxela, P. Hautin, 1571 (orain faksimila X. Kintanak prestatutako edizioan, Bilbo, 2009).
- Cunitz, E., Baum, J.-W., Reuss, E. W. E. (ed.), 1863-1900, *Joannis Calvini opera quae supersunt omnia*, Brunsigiae, C.A. Schwetschke, 59 tomo (58 liburuk). Orain: http://archive-ouverte.unige.ch/vital/acces/s/manager/Repository/unige:65070?type%3A%22Livre%22&query=Jean+Calvin.

- Leizarraga, J.: *Ikus Calvin, J. - Église Réformée de France - Leizarraga, J., ikus, halaber, Linschmann eta Schuchardt [ed.], 1900:1990.*
- Linschmann, Th. eta Schuchardt, H. (ed.), 1900: 1990, *I. Leizarraga⁵ Basque-Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc) im geistlichen Abdruck, Strassburg, 1900 (Orain: Leizarraga, J., IESUS CHRIST GURE IAUHAREN TESTAMENTU BERRIA. Othoitza eclesiasticoen forma, Catechismea, KALENDRENA, ABC edo Christinoen Instructionea, Bilbo, 1990).*
- Bibliografia**
- Barclay Squire, W., 1912, *Catalogue of printed music published between 1487 and 1800 now in the British Museum*, I eta II, Londres.
- Engammare, M., 1991, "Cinquante ans de révision de la traduction biblique d'Olivétan: les Bibles réformées genevoises en France au XVI^e siècle", *Bibliothèque d'Humanisme et Renaissance* LII-2, 347-377.
- Kintana, X., 2007, "Gure Testamentu Berriaren aurreliko zaharrak" in *Iesus Christ gure launaren Testamentu Berria* [Arroxella, P. Hautin, 1571] obraren edizio faksimila [2007]: 49-132.
- Knörr, H., 2007, "Joanes Leizarraga. Vida y obra", in *Iesus Christ gure launaren Testamentu Berria* [Arroxella, P. Hautin, 1571] obraren edizio faksimila [2007]: 133-164.
- Lacombe, G., 1931, "De nouveau sur Ligarrague et ses collaborateurs", *R/EV* 22, 363-366.
- Lafon, R., 1943, 1980, *Le système du verbe basque au XVII^e siècle*, Donostia.
- Peter, R. eta Gilumont, J.-Fr., 1991-2000, *Bibliotheca calviniana. Les œuvres de Jean Calvin publiées au XVII^e siècle*, I, II, eta III, Geneva.
- Ruiz Arzalluz, I., 1991, "El modelo griego de Leizarraga: una quimera filológica?", in J.A. Lakarra (ed.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum, ASJU, Gehigarriak XIV*, 107-115.
- Salaberri, P., 2007, *Leizarraga Zaharra, Leizarraga gaurko, l.g., Errroteta. Zko liburuak*", Karmel 262, 95-107.
- Salaberri, P., 2008, "Inprantak mintzo direnean (Millangestarrak eta euskara-zko liburuak)", Karmel 262, 95-107.
- Salaberri, P., prentsa, "Leizarragaren Kalendrena".
- Vinson, J., 1891-1898: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volume I y II)*, Donostia.